

Ordizian, 2010ko Otsailaren 25ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea
--------------------------	-----------

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea



## **BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

Asenjo jauna eta Auzmendi andrea ez zeuden bilkuran, "Galde-eskeen" puntuan.

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

1.-2010eko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea	3. orr.
2.-2010eko urtarrilaren 29an egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea	3. orr.
3.- Ordiziako emakume eta gizonen arteko I Berdintasun Planaren onarpena	4. orr.
4.- 2009ko gastuak 2010eko Aurrekontura sartzea eta dagokion kreditu gehigarrien espedientea onartzea.	6. orr.
5.- 2009 urteko Ipar-Hegoa Kooperazioaren diru-laguntzak ematea.	8. orr.
6.-Iberdrolari instalazioak uztea eta lursailak ematea.	11. orr.
7.-Herritarren parte-hartzean eta boluntarioraren sustapen arloan diru-laguntzak banatzeko ordenantza arautzailearen hasierako onarpena	13. orr.
8.- Ohiko bilkuran egiteko eguna aldatzea	15. orr.

## **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK**

### **GORA BEHERAK**

### **GALDE-ESKEAK**

- Osoko bilkuretako deialdiengatik eta gazteleraz dauden agiriengatik kexa.
  - San Juan auzoko etxebizitzaren sustapenean ESARBERen kudeaketagatik dagoen gastu ekonomikoari buruzko informazio eskaera.
  - Ez-ohiko diru-laguntza Musika eskolarentzako, Eusko Jaurlaritzak emanda.
  - Oiangurenen egoerari buruzko galderak.
- ..... 17. orr.

## **ORDUTEGIA**

HASIERA ORDUA: 8,05 h

BUKAERA ORDUA: 10.00 h.



Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

## **1.- 2010eko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea**

### Proposamena

#### **2010eko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbeit esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Bstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai.zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.-2010eko urtarrilaren 29an egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea**

### Proposamena

#### **2010eko urtarrilaren 29an egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.



## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **3.- Ordiziako emakume eta gizonen arteko I Berdintasun Planaren onarpena**

#### Proposamena

2009 urtean MURGIBE enpresa Berdintasun Plana egiteko kontratu zen, horretarako herritarren parte-hartzea kontuan izan zen.

Planaren zirriborroa, Gizarte Ongizate Sailaren Delegazioaren aldeko irizpenarekin bidali zitzaion EMAKUNDEri, eta 2009ko abenduaren 21ean.

2010eko urtarrilaren 10ean EMAKUNDEk aipatutako plana onartu zuen baina kontuan hartu beharreko zenbait aholku eman zituen eta onartu beharreko behin betiko dokumentuak erantsi dira aholkuok.

2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**Ordiziako emakume eta gizonen arteko I Berdintasun Planaren onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



### Alkate jauna

Ordiziako emakume eta gizonen arteko I Berdintasun Plana zertan datzan azaldu du.

### Dubreuil jauna

Plana egoeraren azterketa egin ondoren hartu dituzten neurrien multzoa dela adierazi du, trataeran berdintasuna lortzeko, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunak lortzeko eta sexua arrazoiengatik ez bereizteko xedeak ditu.

Finkatutako helburuak ebaluatzeko sistemak ere baditu.

Plana egiteko ardura MURGIBE enpresak izan du, eta 70 pertsonatik gorak hartu du parte.

EMAKUNDEK eta Gizarte Ongizateko Aholku Batzordeak berretsi egin dute Testua.

Berdintasun Planak honako ataletan lan egingo du:

- 1.Neurri orokorak eta Udala.
- 2.Hezkuntza.
- 3.Cultura, Jaiak, Euskara eta Gazteria.
- 4.Kirolak.
- 5.-Lan-mundua
- 6.-Hirigintza eta Ingurumena
- 7.-Gizarte zerbitzuak, Gizareratzea eta Osasuna.

Asmo handiko proiektua dela uste du, aurrerakoia eta aberatsa eta Ordizia solidarioagoa eta berdintasunezko bat lortzeko bidean lagungarria izatea espero du.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren laugarren puntuaren berri eman du:



#### **4.2009ko gastuak 2010eko Aurrekontura sartzeara eta dagokion kreditu gehigarrien espedientea onartzea.**

##### Proposamena

2009 urtean zehar aurrekontuan gorde gabeko gastu batzuk egin ziren zenbait partidatan.

2009 urtea itxi baino lehen, gainezkatze hauek konpontzen ahalegindu ginen ahal zen neurrian, Kontabilitatetik 49.077,58 euroko fakturak kenduz.

Otsailaren 4ko Ogasun Delegazioan gaia Gobernu Batzordera eramatea erabaki zen, hiru aukera baitaude:

- 1.-2010eko partidetan kredituak handitzea, sartu behar dituzten gastuen neurri berean.
- 2.-2009ko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetak arduradunei 2010erako aurreikusi dituzten gastuak bertan behera uzteko eskatzea, 2009an sartu behar diren gastuen neurri berean.
- 3.-Bi aukerak erabiltzea, egindako gastuan borondate mailaren arabera.

Gaia onartzeko premia dago, ordaindu gabeko fakturak baitaude.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua finkatutakoaren arabera, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuena, 2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaian Batzordean gaia aztertu ondoren, osoko Bilkuran honakoa onartzea proposatzen da.

##### AKORDIO PROIEKTUA

**2010 urteko Aurrekontuetan 2009 urteko gastuak sartzeara, 46.889,5 euroko zenbatekoarekin.**

**Kreditu gehigarrien 1. espedientea onartzea 2010eko aurrekontuetan 46.889,52 euroko zenbatekoarekin aipatutako gastuen inkorporazioa neurri batean finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

##### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

##### Alkate jauna

Kreditu gehigarrien espedientea eta 2009ko gastuak 2010eko gastuetan sartzeko arazoia azaldu du, zenbatekoa 46.889,52-€ kopuruarekin.

Gastuek aurrekontua bazutela esan du baina arazoa fakturak berandu iritsi direla, hori izan da arazoa.



### Kontu-hartzailea

Kontu-hartzailea: Ezezkoa esaten dio; benetako arazoa aurrekontuan kreditu falta egotea da. Egia da gerta daitekela gastu batek aurrekontuan aurreikusita egotea eta gastua egin nahi izan denean kreditu falta egotea, baina hori gertatu da krediturik gabeko beste gastu bat aurretik onartu delako.

Honen soluzioa partiden arteko lotura kenduaz etorriko litzateke, baina orduan malgutasuna galduko genduke. Partiden arteko lotura egotea aukera ematen du "partida batean diru gehiago behar bada gehiago astatu daiteke baina beti lotutako beste partidetan gutxiago gastatu behar dela kontuan izanda, ardura hori eduki behar da. Honek sistema laguagoa bihurtzen du.

### Asenjo jauna

2009an diru-laguntzak jaso zituztela azaldu du baina ez dira kontuan hartu partida kreditua handitzeko garaian.

### Kontu-hartzailea

Kasu hauetan Kontu-hartzaileari jakinarazi behar zaiola esan du kredituak gaitzeko espedientea egiteko.

### Maiza andrea

Finantza kontuak ezagutzen ez dituztenentzako funtzionamendurako 4,5, edo 6 oinarrizko arau jakitea komeni dela esan du.

### Kontu-hartzailea

Kontu-hartzaileak erantzun dio Txurruka jaunarekin horretarako formazio saioa prestatzen ari dela esanez.

Horrekin batera adierazi du urte bateko kredituak bestean sartzeak aurreko urteko gastu izan direnetan bakarrik eragiten duela.

### Iturrioz andrea

Foru Aldundian erreserbek ere berdin funtzionatzen dutela esan zuen.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (IU/EB-ARALAR 1)



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.-2009 urteko Ipar-Hegoa Kooperazioaren diru-laguntzak ematea.**

#### Proposamena

Kooperazio proiektuak egiteko gobernu kanpoko erakundeentzako diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2009 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 18 proiektu aurkeztu dira. Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida 50.000 eurokoa da.

Proiektuak aztertu ondoren eta 2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

Ondoren zehazten diren diru-laguntzak onartzea, honako proiektu eta erakundeei banatuko zaiena:

- 1- Gazteak eta Garapena/ Porto Novo (Benin)eko kaleko umeak gizarteratzeko eta formazioa emateko laguntza. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.
- 2- Gipuzkoako Oskar Romero solidaritza batzordea, “ desnutrizio larria duten umeentzako biziraupena eta garapena”, El Salvador. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.
- 3-Euskal Herriko Senso San Viator, “Banforako gazteei indarra ematea, lan-mundura sartzeko aukera izan dezaten euren hezkuntza maila handituz, Burkina Faso. Emandako laguntza: 3.000 euro.
- 4- Denok Osasunaren Alde, “osasun-langileentzako laguntza, formazio eta trebakuntza emateko Beni eta Santa Cruz departamentuetan ospitale publikoekin lankidetzeta programa”, Bolivia. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.
- 5- Ilargi Beltza elkarte, “umetokiko minbizia saihesteko osasun-arreta zerbitzua handitzea”, Nicaragua. Emandako laguntza: 3.000 euro.
- 6- Bakearen Kooperaziorako Batzordea, “Etamako 161 biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetzea”, Senegal. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.
- 7- Phagma Drölma-Arya Tara, “ume tibetarrentzako albergea eraikitzea”, India. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.





8- Mugen Gainetik “Chiapasen genero, klase eta etnia bazterketaren aurka eskubideak sustatuz”. Mexico. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.

9- MunduBat Fundazioa, “Emakumeen taldeetan produkzio eta merkaturatze egoera hobetzeko laguntza”, Honduras. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.

10- Medicus Mundi, “Orellanako Amazonaseko probintzian herritarren formazioa eta trebakuntza, hezkuntza zentro bat hornituz eta partxan jarrita”. Ecuador. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.

11- Emaus gizarte fundazioa. “Lurrik gabeko eta gizakiak asentatzeko mugimenduari indarra ematea”, Bolivia. Emandako laguntza: 3.000 euro.

12- Goierriko Gurutze Gorria. “Amazonetako emakumearen eskubideak sustatzea”, Peru. Emandako laguntza: 3.180,80 euro.

13- Solidaridad Compañía de María Nazioarteko Fundazioaren “familia indarkeria murrizteko komunitatearen parte-hartzea”, Peru Emandako laguntza: 3.000 eur.o

14-Taupadak “Alberge bat eraikitzea indigenei kalitatezko hezkuntza teknikoa eskaintzeko”, Bolivia. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.

15.- Esku Batuak (Manos Unidas) “ Nekazari eta indigenen komunitateetan oinarri produktibo eta soziala indartzea”, Bolivia. Emandako laguntza: 3.181,80 euro.

16- Rokpa “Yushun lehen eta bigarren hezkuntza eskola”, Tibet, Txina. Emandako laguntza: 3.000 euro.

Ondorengo erakundeek eskatutako diru-laguntzak ukatu, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik:

1- Herriak Elkarlanean/ Misiones Diocesanas. Jacmel-en, Haitin, ikastetxe bat eraikitzea. Urtarrileko lurrikadaren ondorioz, Jacmeleko proiektua zintzilik geratu da. Bere ordeaz, 8.000 euroko laguntza zuzena eman zaie (2010eko aurrekontua), MMDDri elikagaiak bidaltzeko.

2- Herriak Elkarlanean/ Misiones Diocesanas. “Gizarte, hezkuntza, ongizate zerbitzuak, administrazio agenteentzako trebakuntza”. Eskatutako kopuruak (14.000 euro) udal ordenantza finkatutako gehienezko kopurua (12.000 euro) gainditzen du. Proiektuak 16.800 euroko gastua du osotara eta Ordiziak proiektua burutzeko 14.000 euro eman beharko lituzke, kopuru hau aurrekontu faltagatik ezin da eman deialdi honen bidez.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



### Alkate jauna

2009 ekitaldiari dagokion deialdia dela esan du, eta 50.000 € daudela.

18 proiektu aurkeztu dituztela azaldu du, 16 lagundu dira diruz eta aurkeztutako 2 proiektu baztertu dira.

### Leunda jauna

Azaldu du ez dagoela diru-laguntzen kontra baina laguntzak emateko sistema edo politika salatzen du.

Diru-laguntza hauek Alkatetzaren menpe egotearen aurka dago. Horretarako adostasuna behar dela uste du. Irizpide batzuk egon beharko liratekeela uste du, Udalaren aurrekontuaren %1 kooperaziora bideratzen baita eta era zuzenean bideratzen da.

Jakinarazi du Osoko Bilkurarako Gaien batzordean esan zuela, eta diruz lagundutako proiektu gehienak Eliza katolikoarekin dutela lotura, eta PNVk ez zuela Eliza hori kritikatu Aita Santuak preserbatiboaren inguruan duela gutxi egin zituen adierazpenen aurrean.

Osoko Bilkurako erabaki batean ere Udalak Saharari diru-laguntza emateko konpromisoa hartu zuela azaldu du eta zehaztutako diru-laguntzetan Sahararen inguruko proiekturik ez dagoela esan du.

Eliza Katolikoak jasotzen duen diru-laguntza eta proiektuen inguruan jakinarazi dute 150 milioi euro jasotzen dituela, eta egiten dituen adierazpenak zaindu behar dituela uste du.

HIESagatik Hego Afrikan 1500 pertsona hiltzen direla azaldu du. Hau kritikatzeko modukoa dela uste du.

### Alkate jauna

Erantzun dio esanez badaudela zuzeneko laguntza batzuk, adibidez Haitira bideratutakoak, baina bere ustez 8.000 € ez da oso partida garrantzitsua.

Eliza Katolikoari dagokionez, gauza asko esan eta pentsatzen dituela azaldu du baina ez du uste Aita Santua Afrikan edo HIESarekin arazoa duten lekuetan preserbatiboa erabiltzearen kontra dagoenik.

### Leunda jauna

Ez da Haitiko laguntzaz ari soilik, zuzeneko laguntzaz ari denean Beninera, Filipinetara, etab. bidalitako laguntzak ere barruan sartzen ditu.

Gainera ez du uste Afrikan HIESarekin gertatzen ari dena Aita Santuaren errua Denia baina esaten duenak garantiza duela uste du.

### Dubreuil jauna

Bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela esan du eta gainera datozen urteetan Haitira laguntza bideratzearen alde lan egingo dutela azaldu du.



## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **6.Iberdrolari instalazioak uztea eta lursailak ematea.**

#### Proposamena

Herrigune historikoan dauden transformazio guneen saturazioak sortutako beharraren berri ematen da, etorkizuneko behar berrien hornidura egokia bermatzeko transformazio gune berri bat exekutatzearena, Barrena parkean ipini da transformazio gune hau.

Iberdrolak eskatutako betekizunaren berri ere eman da, transformazio gunearen eta tentsio ertaineko lurpeko sareen instalazioen lagapena egiteko, eta baita transformazio guneak okupatzen duen lurzoru eta lursailen erabileraren lagapena ere.

1955/2000 Errege Dekretuaren 45.6 Artikulua ikusita, garraiobide, banaketa, komertzializazio, hornidura eta energia elektrikoko instalazioen baimen prozedura arautzen duena, ondorengoa adierazten du "kontsumitzaile bat baino gehiagorentzako instalazioak banaketa sare gisa hartuko dira, eta inguruko enpresa banatzaileari eman beharko zaio....".

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiko 78 eta SS artikulua ikusita, jabari publikoko ondasunen erabilera publikoari buruzkoa, erabilera pribatiboan gehienez 50 urteko kontzesio bidez egingo dela dio, eta transformazio gunea erabilera publikoko lursailetan dagoela kontuan hartuta 10,23m<sup>2</sup> azalerako lursailen kontzesioa egitea egokitzen da, eta gehienez aipatutako epean erantsitako planoaren arabera, eta zehaztutako zerbitzua eskaintzen den bitartean.

2009ko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA



**1.- IBERDROLA Distribución Eléctricari ondorengoa lagatzea: erantsitako agirian A arketa eta Transformazio gunea lotzen dituen lurpeko sarearen instalazioaren jabetza eta Barrena Parkeko Transformazio Gunea.**

**2.- Aipatutako instalazioen erabilera eta mantenimendua lagatzea.**

**3.- Transformazio Gunea dagoen lursailaren erabileraren kontzesioa baimentzea, zerbitzua eskaintzen den bitartean eta gehienez 50 urteko epean eta 740,65.-€tako kanona duela.**

**4.- Alkate-Lehendakari jaunari honako akordioa gauzatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko eskumena eman.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Barrena inguruan jarri duten transformazio guneak Herrigunearentzako hornidura elektrikoa eta eraikin publikoentzako hornidura ematen duela azaldu du. Potentzia elektriko eskasari aurre egiteko neurria izan zen. Martxoaren 9rako arazoa konponduta egongo da. Iberdrolak baieztatu du. Inbertsioa Udalak finantzatu du. Egindako instalazioak Iberdrolari uzten zaizkio eta Iberdrolak instalazioekin egiten duen eremu publikoaren okupazioa administrazio kontzesio bati lotua dago, eremu publikoaren erabilera pribaturako. Eremu publikoari erabilera pribatua emateagatik urteko 740,645 €ko kanona finkatu da.

#### Maiza andrea

Ez du oso ondo ulertzen hornidura elektrikoarekin gertatu dena, batez ere Hizkuntza Eskola Ofizialarekin.

Ez daki beharrezkoa den kudeaketa egin den baina lotsagarria iruditzen zaio ikasle baten aitaren bitartez Udalaren utzikeriagatik izan zela jakitea.

#### Alkate jauna

Iberdrolarekiko harremanak zailak direla esan du eta espedientea geldirik egon da denboraldi batean baina ez da Udalaren utzikeriagatik izan, baizik eta Iberdrolako pertsona baten utzikeriagatik.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)  
Kontrako botoak: 0  
Abstentzioa: 1 (IU-EB/Aralar)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.Herritarren parte-hartzean eta boluntariotzaren sustapen arloan diru-laguntzak banatzeko ordenantza arautzailearen hasierako onarpena**

#### Proposamena

Boluntariotzak herritarren elkartasuna adierazi nahi du. Irabazi asmorik gabeko elkarte gehienek boluntario taldeak dituzte beraien programen onurak jasotzen dituztenei zerbitzuak, arreta eta ekintzak eskaintzeko, eta helburuak lortzeko ezinbestekoa da boluntarioen lana. Horrez gain, herritarren parte-hartze aktiboaren lker dira eta herritarrei horren berri ematen diete.

Arautegi honen bitartez Ordiziako Udalak herritarren parte-hartze mugimendua sustatu nahi du era ordenatu eta arautuan, eta beraien programak antolatzeko boluntario taldeak kudeatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte eta pertsonen laguntza eskaini.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2d) artikulua zehazten duren arabera, Udalarari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzek honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a.- Osoko bilkuraren hasierako onarpena.
- b.- Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c.- Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**1.- Herritarren Parte-hartzea eta boluntariotzaren sustapenerako diru-laguntzak arautzen dituen**



**Ordenantzari hasierako onarpena ematea.**

**2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jauna

Erakunde eta boluntarioen lana aitortuz egin du aurkezpena. Aipatutako boluntariotzarekin lotuta arautegi berezi bat dago, Administrazioentzako beharrezkoa dena, eta oinarrizko batzuk aipatu ditu.

Aipatutako boluntariotza sustatzea Administrazioen beharra dela esan du.

Ordiziako Udalak uste du beharrezkoa dela sentsibilizazio lana eta honelako erakundeak sustatzeko zenbait neurri finkatzea proposatzen du eta etorkizunean baita saritzea ere.

Ordenantza onartuz boluntariotza sustatu nahi da, Gizarte Ongizateko Udal Aholku Batzordeak onartutako zenbait diru-laguntzen bitartez eta herritarren partaidetza ere kontuan hartzen du.

Sustapen lanean beste urrats bat gehiago ematea dela uste du.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, IU-EB/Aralar))

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **8. Ohiko Osoko Bilkura egiteko eguna aldatzea**

#### Proposamena

2007ko uztailaren 20an udaleko osoko bilkurak ez-ohiko deialdian hartu zuen erabakiaren berri eman da, ohiko osoko bilkuren data eta ardua finkatu zuten, hileko azkeneko ostegunean goizeko 9:00etan.

Honekin batera Iban Asenjo zinegotziaren proposamenaren berri eman zuten, finkatutako egunetan lan arrazoiengatik ezin baitu bertara joan, horregatik, osoko bilkurak hileko azken ostiraletan egitea proposatzen du.

Osoko Bilkurarako Gaien batzordeak, 2010eko otsailaren 17an egindako bileran, Asenjoren eskaera betetzeko inongo eragozpenik ez dagoela ilusita, honakoa proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

#### **Ohiko osoko bilkurak hileko azken ostiraletan egitea 8:00etan.**

Proposamena hileroko azkeneko ostiralera pasatzea da, osoko bilkurak ostegunetan egin beharrean.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Leunda jauna

Eguneko Gai Zerrendan puntua ez zela azaltzen esan du.

#### Idazkari andrea

Erantzun dio esanez egia dela puntua ez zutela zinegotziei legeak eskatzen duen epean bidalitako eguneko gai ordenean sartu. Jakinarazi di beranduago posta elektronikoko bidez bidali dela akats zuzenketa.

Esan du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean puntua sartzea onartu zutela.



### Leunda jauna

Proposamena adar-jotzea iruditzen zaiola esan du, bere taldeak behin baino gehiagotan eskatu baitu osoko bilkurako ordutegia aldatzea, eta orain, Asenjo jaunak bilkurara joateko arazoa duenean, aldaketa proposatzen da. Lotsagarria iruditzen zaio.

### Asenjo jauna

Ez joateko arrazoia eman dio.

### Dubreuil jauna

la zinegotzi guztiek lana egiten dutela esan dio eta gaur egun lana eta politika uztartzea zaila dela esan du.

Osoko Bilkuretara zinegotzi guztiek etorri ahal izateko ordutegia aldatzea garrantzitsua iruditzen zaio zenbaitek benetako arazoak baititu.

Arratsaldeko 7etan Osoko Bilkura egin izan denean, beste legegaldi batzuetan, herri ordezkariak arriskuan izan direla esan du.

### Leunda jauna

Horrek Udalaren Barne Araudia urratzen duela esan du eta herri ordezkariak osorik ez dagoela esan du, ANVri buruz ari da.

### Dubreuil jauna

Alderdien Legea Parlamentuak sortu duela esan du, eta bertan dagoela herri subiranotasuna. Gainerakoa iritziak dira.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 1 (IU-EB/Aralar)

Abstentzioa: 0





**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **9.- Galde-Eskeak**

Leunda jaunak jasotzen dituen dokumentuekin arazoak dituela esan du, batzuetan gazteleraz bakarrik dagoela.

Orain adibidez, Udalarentzat lana egiten duen ATTEST aholkularitza enpresaren dokumentazioa gaztelera hutsean dago. Diruarekin konpontzen den arazoa dela uste du. Normalizazio prozesua motela dela badaki baina gauza hobetzeko zerbait egin daiteke.

Idazkari andreak informazioa eman dio.

- 1.-Kanpoko dokumentazioari dagokionez, diruz konpondu daiteke beharbada.
- 2.- Zenbait Organu kolegiaturen deialdiekin lotutako barruko agiriei dagokionez, bere erantzukizunekoak direla esan du, baina Osoko Bilkuran jakinarazi du agiri guztiak elebitan prestatzeko arazo handiak izaten dituela.

.....

Leunda jaunak azaldu du Gai Arruntzen Batzordean gobernu taldeari eskatu ziola San Juango sustapenarekin, ESARBE enpresak, Ordizia Lantzen SA kudeatzen duenak, zenbat irabaziko zuen edo zein etekin jasoko zuen. Asko iruditzen zaio. Honelako lanak kanpoan egitearen kontra dago eta uste du Udalak berak kudeatu beharko lukeela gaia zuzenean.

Kudeaketagatik jasotzen duena jakin nahi du.

Berak kalkulatu du, ez daki kalkuluak ondo edo gaizki egin dituen, ESARBE enpresak 3.000.000 € kobratuko dituela kudeaketagatik.

Ordizia Lantzen SA zuzenean kudeatuta zenbat aurreztuko litzatekeen jakin nahi du, ez lehendik dagoen langileekin baina bai horretarako langile gehiago kontratatuta.

Orain dela gutxi, azaldu du, Beasaingo Udaleko talde sozialista haserre bizioan zegoen Beasain Lantzen SA enpresak ateratzen zituen etekinengatik.

Erantzun dio esanez enpresa honek ez duela ezer "eramaten" , zergait egitekotan "irabazi" egiten duela. Beste noizbait erantzun dion bezala, esan dio enpresak jasotzen duena lege-mugen barruan dagoela eta gutxi gorabehera VISESAk kobratzen duenarekin alderatuta laurdena kobratzen duela.



Leunda jaunak esan du legezkotasunari dagokionez ez duela zalantzarik baina finkatutako lege-kopurua gehiegizkoa iruditzen zaio.

Alkate jaunak esan du egindako lanaren eta lortutako onuren arabera kobratzen duela.

Leunda jaunak erantzun dio esanez beste sistema baten bidez kopuru hori jaisteko aukera aztertu beharko litzatekeela eta horrela txiringitoak utzi, PNVrekin lotutako enpresa bat dela esan nahiean.

Iturrioz andreak uste du edozein pertsonak edo pertsona taldek sortu dezakeela negozio bat, eta ez partiduek.

Leunda jaunak adierazi du PNVk enpresak sortzen dituela aberasteko. ESARBEk diru asko irabazten du eta denek dakigu zeintzuk osatzen duten enpresa.

Dubreuil jaunak, aipamenengatik, esan du Ordizian ESARBErengan konfidantza dutela kudeaketa kontratu zenetik. Ez daki zergatik Beasainen ez da horrela izan eta zergatik kritikatu den bere kudeaketa.

ESARBEk kobratzen duena legez onartutakoaren nahiko azpitik dagoela uste du, eta gainera bere kudeaketarekin pozik dago. Udalaren onespenearekin onartu zen eta gainera lizitazio publikoa egin zen.

Ez du kontuan hartuko zeintzuk osatzen duten enpresa. Esleipen prozedura garbia eta legezkoa izatea da garrantzitsuena eta eskumena duen enpresak gaitasuna erakutsi du.

Ez du kalkulo zehatzik egin, baina san Juan bezalako sail bat kudeatzea zaila iruditzen zaio, batez ere Udaleko langileak kudeatuta, bere dimentsioagatik eta zailtasunagatik.

Kontu-hartzaileak uste du gremioen koordinazioa kalkulatzea eta ondo exekutututako urbanizazio obra bat burutzea ez dela oso zaila. Zuzendaritza ona eduki beharko lukeela uste du. Berak ez du horrelako kalkulorik egin.

VISESAk %8 kobratzen duela baina babes ofizialeko etxebizitzekin lan egiten duela esan du.

ESARBEk %6 kobratzen du. Babes ofizialeko etxebizitzetan, etxebizitzaren salneurria eta lurzorua eragina eraikuntza gastuetara hurbiltzen da. Etxebizitza libre batean kontuak desberdinak direla badaki.

Leunda jaunari lotsagarria iruditzen zaio ESARBEk kudeaketagatik kobratzen duena ez jakitea. Berak ez du zuzenean exekutatzeko modua finkatzen, baina zuzeneko kudeaketarekin alderatu gabe kudeaketa modua hau aukeratu izana kritikatzeko du. Alderi politikoek etekina ateratzea, hori saihestu behar da.

.....

Leunda jaunak jakin du Musika eskolak Eusko Jaurlaritzaren ez-ohiko diru-laguntza bat jaso duela eta diru-laguntza hori zertan erabiliko den jakin nahi du.



Maiza andreak esan du ez-ohiko diru-laguntza gisa azaltzen den arren, “musika irakasteko zentroyen mantenurako” diru-laguntza dela.

Mantenuan honakoa sartzen da: 1.- Eraikina berriztatzea edo hobetzea (Barrena Jauregia) eta 2.- Musika Eskolako material berezia (musika tresnak...etab.)

Maiza andreak uste du eraikinaren teilatua berritzeko azterketa egin beharko dela, konpondu behar dela ematen baitu.

Kontu-hartzaileak uste du mantenimendu hitzak Maiza andreak aipatutako kontzeptuak baino kontzeptu gehiago barneratzen dituela.

Hala ere kontzeptu horren zentzua argitu egin beharko da.

Leunda jaunak berriro ere gobernu taldearen jokaera kritikatzten du. Berriaz Udaletik kanpo enteratu da.

.....

Patxi Uranga Saiz jaunak, “Oiangu Bizirik” plataformaren izenean, Oinagurenen egoeraz galdetu dio Alkate jaunari. Kantxa irekita edo itxita dagoen galdetu dio, eta ea zeinek kenduko dituen egurrezko posteak. Plataformak bilera egin nahi du Alberdi politikoeekin Oiangurenen egingo dutenaz hitz egiteko. Horrekin batera lkenak porrot egin duenaren kaleko zurrumurrua egia den galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez praktika kantxa itxia dagoela. Une hauetan ez daki Ikengu enpresa ordainketa eteteko prozesuan dagoen, dakien gauza bakarra da Ikenguk kontzesioa bertan behera utzi duela.

Oiangurenekin zer gertatzen den aztertu behar da orain. Gaia aztertu egingo da.

Uranga jaunak Gobernu Batzordeko bilerara joan nahi dutela esan du, baina Alkate jaunak erantzun dio esanez bilera egiteko deituko dietela baina ez Gobernu Batzordeko bilerara. Azterketa lana lehenik etxean bertan egingo da.

Uranga jaunak argazki batzuk erakutsi ditu, bertan pertsona bat azaltzen da kantxan pilotak botatzen. Atzo bertan ikusi zuen eta bolak botatzen. 2010eko otsailaren 10eko argazkiak erakutsi ditu.

Kantxa itxita baldin badago sarrera ixteko eskatzen du eta Udaltzaingoak jarraipena egiteko.

Leunda jaunak esan du berak Gai Arrunten Batzordean bertan Oiangureni buruz galdetu zuela eta osoko bilkuran gaur esaten ari direnari buruz ez zuela informaziorik jaso. Alkate jaunak nahi duenari buruzko informazioa ematen diola uste du, Ikengurekin bilera izan duela badaki eta ez du bilera horri buruzko informaziorik jaso.



Proiektuak porrot egin duela uste du eta poztu egin da horregatik. Proiektuak udalerrian azkeneko 5 urteetan haserrea sortu duela uste du. Abandonatutako eremua izan da eta ez da herritarren parte-hartzea kontuan hartu.

Gauzak hobeto egiteko aukera berria dago orain eta jendearen iritzia kontuan hartzeko garaia da.

Dubreuil jaunak Leunda jaunari esan dio oso larria iruditzen zaiola norbaitek poza sentitzea proiektuak porrot egin duelako, horrek dakarrenarekin, eta enpresa batek porrot egitea ez zaiola pozteko modukoa iruditzen.

Leunda jaunak azaldu dio proiektuaren porrota ona dela Oiangureni beste aukera batzuk emango dizkiolako.

Uranga jaunak uste du hura txukundu beharreko zabortegia dela. Proiektuak higiezinen burubuilagatik porrot egin duela uste du, plataformak kontra egin duen oposizioa txikia izan dela uste du.

Dubreuil jaunak uste du proiektuak porrot egin duela krisi egoeragatik baina proiektuarengan uste osoa du eta uste osoa izaten jarraituko du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak Osoko Bilkura amaitutzat man du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.